


FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko eta hau egoki funtziona dezan, funtsezko jarduera batzuk edukiko ditugu, hala nola, gurpil aulkian dauden pertsonen Zinemetan zerbitzu bat eskaintzea bere beharrak ikusirik. Zerbitzu hau ikusten den bezala merkatuaren segmentu batek dituen behar bati erantzuten die horregatik, ezagutzaren gestioan oinarrituta dago, etengabeko prestakuntzan dagoen zerbitzu bat da. Hala nola:

- Ezagutzaren gestioan oinarrituta: Gure enpresa kontziente da gizartean merkatu segmentu batzuentzako, gure kasuan gurpil aulkian daudentzako, hainbat behar daudela. Horregatik horietako bat asetzeko sortu da.
- Etengabeko prestakuntzan: Nahiz eta gure proiektua hasiera batean Errenteriako Zinema aretoan bakarrik egon, gure ideia Gipuzkoa osora zabaltzea da. Horrez gain, suertatu daitezkeen aldaketei aurre egiteko prest gaude, dagozkien neurriak aurrera eramanez.



Eskaintzen ditugun zerbitzuez gain, funtsezko beste jarduera bat ere edukiko dugu: plataforma edo sareko jarduerak, hau da, gure plataforma teknologikoa (web orrialdea zehazki) kudeatzea, mantentzea eta sustatzea. Honetarako, plataformaren gestioa kontuan hartuko dugu eta etengabeko mantenu bat emango diogu gure bezeroak web orrialdea ondo ulertu eta erraz erabil dezaten. Honez gain, plataforma promozionatzeko hainbat estrategia erabiliko ditugu, nahiz eta web orria ez izan gure negozioaren ardatza hau gure bezeroekin kontaktuan izango dugun bide eraginkorrena delako.

Azkenik, nahiz eta gu zerbitzu osoa eman, hau da, zerbitzuak eskainiko duena diseinatu eta entregatu, badaude zeregin batzuk gure enpresak egingo dituenak eta beste batzuk beste kanpoko enpresa batzuen esku utziko ditugunak beraiek ekoizteko, hala nola, butakak, Zineko gelaren lurra... Hau da, gure enpresaren funtsezko jarduera zerbitzua bat eskaintzea bada ere, hainbat enpresen laguntza behar dugu gure zerbitzuan eskaintzen ditugun produktu guztiak ekoizteko.

